

# EUSKADIKO ETXEBIZITZA LEGEA

Ohiko galderak

## Etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko Eskubide Subjektiboa

1

ZER DA ETXEBIZITZA DUIN ETA EGOKIA LEGEZ OKUPATZEKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA?

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritako auzotasun administratiboa duen pertsona orok eskubidea du etxebizitza duin, egoki eta irigarria izateko.

Eskubide hori ondo bete liteke etxebizitza babestua edo bizitoki babestua alokatzeko aukera emanda, baita etxebizitza librea alokatuta ere, etxebizitza libreraren bat eskueran badago

bitartekaritza-programaren baten ondorioz edo beste arrazoiren batengatik; betiere, kasu bakoitzean egoki den errenta edo kanona ezarrita.

Inongo etxebizitzarik edo bizitokirik ez badago eskuratzeko moduan, eskubide hori diruaren bitartez gauzatzeko aukera ere izango da.

2

ZEIN EGUNETIK AURRERA ESKA DEZAKET ETXEBIZITZAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA BETE DAKIDAN?

Horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituztenek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera eska dezakete etxebizitzako eskubide subjektiboa betetzea.

3

ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUT ETXEBIZITZAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA BETETZEKO?

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta bestelako erregelamendu-garapenik ez bada, honako baldintzak betetzen dituztenek izango dute aukera etxebizitzako eskubide subjektiboa eskatzeko:

- Ez izatea etxebizitza edo bizitoki egonkor edo egokirik jabetzan.
- 3 kide edo gehiagoko elkarbizitza-unitate batekoa izatea.
- Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroan izena emanda egotea, gutxienez, duela 4 urtetik.
- Urtean 15.000 eurotik beherako diru-sarrerara egiaztatzea.

## Hutsik dauden Etxebizitzak

1

ZER DA HUTSIK DAGOEN ETXEBIZITZA?

Legeak kontu honi dagokion artikuluan xedatzen duenaren arabera, etxebizitza jenderik gabe dagoela joko da, zehazki, bi urtez baino gehiago jarraian jenderik gabe egon bada, non eta etxebizitza hutsik egotea ez badago justifikatuta arrazoiren batengatik (adibidez, bigarren etxebizitza, edo lanagatik, osasunagatik, dependentziagatik edo larrialdiren bategatik bizitzera beste norabait joan beharra, edo saltzeko edo alokatzeko edukitzea).

2

NORK ESAN DEZAKE ETXEBIZITZA HUTSIK DAGOELA?

Udalak esango du etxebizitza noiz dagoen hutsik edo, udaletxearen ordezkari, Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-kontuetan eskumena daukan sailak. Edonola ere, etxebizitzaren bat hutsik dagoela jotzeko ebazpenak administrazio-prozedura behar du aurretik, eta horren bidean etxebizitzaren titularrek beren adierazpenak egiteko aukera izango dute.

3

ZER KANON ORDAINDU BEHARKO DUT ETXEA HUTSIK EDUKITZEAGATIK?

Legeak aipatzen duen kanona etxebizitzaren zeregin soziala betetzen duela ziurtatzeko da, eta udalei aukera ematen die egoki irizten dutenean ezartzeko, administrazio-bideko behin betiko egintza baten ondoren etxebizitzaren bat ofizialki hutsik jotzen dutenean.

Urteko eta metro karratu bakoitzeko 10 euroko zerga izango da kanona, eta etxea hutsik dagoen urte bakoitzeko %10 handitzeko aukera izango da, baina gehienez ere, hasierako kopurua hirukoiztu arte.

3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.(EHAA, 119ZK, 2015eko ekainaren 26a)

+ Info: [www.etxebide.euskadi.eus](http://www.etxebide.euskadi.eus)

PERTSONA HELBURU  
COMPROMISO CON LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES